



"PEDRO DE ATARRABIA"
XXVIII. LITERATUR
SARIKETA

Pascalén ganbaran

EZIZENA: LOUIS DE MONTALTE

EUSKARAZKO MODALITATEA

*Ma chambre a la forme d'une cage
Le soleil passe son bras par la fenêtre
Les chasseurs à ma porte
Comme les petits soldats
Qui veulent me prendre.*

Pink Martini

Irratian aditu nuen aurrekoan abestia (ai, zenbatetan abestu dugun frantses traketsean *je ne veux pas travailler* hori!) eta lehen estrofa horrek adiera desberdina hartu zuen, batez ere gerora jarraitu zuena aditu ostean. Izan ere, gizakume ooren atsekabeak gauza bat eta bakarra omen du kausa: gela batean, bakarrik, deus egin gabe, atsedean hartzen ez jakitea. Hala uste zuen, bederen, Blaise Pascal filosofoak eta horren gainean jardun ziren irratian. Eta pentsatuko duzu (orduan nik pentsatu nuen gisan): bai zera! Nik errez igaro ditut konfinamendu orduak etxean, lanera joan gabe eta lagunekin bildu gabe, liburu eta ardo kopa on bat eskuan, edo beste hau ere pentsa dezakezu: horixe bera da-eta nahi dudana! Nola izango da, ba, ezinezkoa? Lan egiteari utzi, umeen eskakizunei muzin egin, gurasoei bisitarik ez egin eta ezer berezirik egin gabe egon denbora batez, lurrak irentsi izan banindu bezala: hori da-eta nire desirarik antsiatuena! Baina Pascal ez da horretaz ari: zeren eta irakurtzea zerbait egitea da, edo lurrak zu irenstea ere (telebistak edo mugikorrek irensten gaituen gisa berean) zerbait egitea da. Deus egin gabe, gure burua eta eskuak zerbaitetara dedikatu gabe edukitzeko ezintasunak sortzen omen du, Pascalen ustez, gizaki ooren atsekabea. Nago arrazoia zuela; gela itxi batean orduak igarotzea zaila izan daitekeela ez badugu denbora zertan endredatu. Haren ustez, entreteniturik ez gaudenean jaiotzen diren pentsakizunak ekidite aldera

bidaltzen ditugu aberriaren semeak gudara, horregatik borrokatzen hurkoarekin, horregatik lurralde ezezagunak konkistatzen (Pascalen garaian gure planeta, orain espazio siderala), horregatik nahasten eta kateatzen dugu geure burua eta gorputza bizitzaren zurrumbilora; gela batean, ezer egin gabe ez dakigulako egoten.

Horregatik, gela hutsak pizten dituen mamuei muzin egiteko asmatu zuen gizakiak dibertimendua, gure eguneroko ordenatutik eta zentzudunetik at dauden pentsamenduak uxatzeko, saihesteko. *Divertere* hitzak, zeina latinetik datorren, horixe bera ematen du aditzera: kontrako norabidea hartu, bidetik irten, urrundu, bira eman, itzuri, alboratu, haizatu... Nahi adina sinonimo ekintza bakar horren erpin oro deskribatzeko. Dibertsioa, beraz, nork bere mamuei kontra egiteko bidea da, nork bere kezka sakonenak aldentzeko modua, nork bere baitako amildegia urrunetik bistaratzeko manera. Eta gehiago ere aitortzen digu Pascalek: ilusioa hain da handia ezen dibertsioa gauza serioa dela sinestarazten dugun. Pandemiak frogatu du Pascalek arrazoi izpirik bazuela, izan ere, ez al dizkigu itxialdiak agerian utzi zein garrantzitsuak diren gaueko dibertsioak? Ez al du frogatu zein garrantzitsu diren Sanferminetako almuerzikoak eta herriko bestak? Bai, zuetako askok lehen momentutik iragarri zenuten: dibertsiorik gabe galduta gaude.

Dibertsioak, baina, ez dira orditze zatarrean geratzen: sofistikazio maila apalenetik hasita goreneraino doaz, parranda zerri bat egitetik Shakespeareren *Macbeth* irakurtzeraino; ikerketa zientifikotik hazkazalak pintatzeraino: dena da dibertsio, gauza ustez serioak barne.

Gizakia animalia ahula eta doilorra da, astunegi zaio ispilua, ankerregi benetan dena gertutik arakatzea, eta horregatik maite du astrapaladan galdu: dibertitu, seriocki, formalki, larriki, benazko eta irmoki, baina besterik ez, den horixe ahazteko dibertitu.

Bai, polita. Zer uste zenuen, ba? Halako batean, inoiz baino kirolariago izateko grina sortu zaizula itxialdi garaian, eta horregatik hasi zarela egunero-egunero, arratseko 19etatik 20etara, telebista edo ordenagailu aurrean, ipurdi sendoko neska katxarro bati begira hark egiten zituen ariketak imitatzen (imitatzen?) eta sekula nabaritu ez zenituen giharretan mina sentitzen? Zugan betidanik lokarturik egon zen kirolari sena piztu duela itxialdiko bakardadeak? Zuk bazenekiela, txikitatik jakin ere, maratoni bat korritzeko jaioa zinela? Eta horregatik jarraitu duzula itxialdia amaituta ere, Decathloneko praka fashion batzuk eta motxila super arin bat erosita Piriniotako gailurrik ezagunenak asteburuero eskalatzen?

Eta zu, irribarre maltzurrik ez kirolarekin *dibertitu* diren horietaz, aditu! Hemen ez baita inor libratzen. Zeu ere, ogi integral, kamutdun, sarrazenodun eta pepitadun egile *amateur* hori, zeu ere saiatu baitzara gela hutsa ekiditen, kontrako atea irekitzen, bira ematen. Oroitzapenez betetako kuarto hutseko atea giltzaz itxi eta sukaldera abiatu zara, betidanik hor zeuden baina inoiz ez zertarako ote ziren ez zenekien tresnaz eta janariz eta espeziak beteriko sukaldean eman dituzu egunak. Bai, zeuk ere bidezidorra hartu duzu gela hutsak sortzen dituen zuloak bixkotxo samurren zulotxoekin aldatzeko eta gauean pizten diren amesgaiztoak esnemamitan itotzeko. Elikadura subiranoaren aldeko neomilitante porrokatua zu... Bat-batean konturatu dena Netflixeko dokumental bati esker jaten dituen aguakateak zer

kutsakor eta zer kapitalista diren (nahiago zenuen horren berri ez izan, ezta? Orain aitzakiarik ez)... Ginger infusioa eta tayin potea eta seitan astero erosi duzun hori.

Eta yogazaleak ere ez ditzagun ahantzi. Bat-batean unibertso kosmikoarekin bat eginda sentitzen direnak, *nirvanatik* gertuago (*nirvana* zer ote den dakienarentzat, behintzat). Egunero txakurraren posiziotik gamelura pasa, arrainarenetik eta goldearenetik igaroz. Orain dena baita *chakra* (nola idatziko ote da euskaraz? Ba ote du euskaltzaindiak hiztegi yogiko bateratua?) harmonian izatea eta energia bideak irekitzea. Zer uste zenuen zeuk ere: Aliexpressen 10 euroren truke erositako Budaren figuratxoak zure bide siddhartikoa ireki dizula? Mendebaldeko arbasoak makurrak eta ezjakinak direla eta ekialdeko filosofiak argituko digula bidea? Indiara hurrengo bidaiara pentsatzen ari zaren lagun maitea... Konfinamenduak arnasketa yogikoa eta meditazioa deskubritu dizkizun lagun maite-maitea, hemendik hil batzuetara esterilla hondartzan botata egoteko besterik erabiliko ez duzun lagun maite-maite-maitea, yoga dibertsio bat gehiago da...

Eta badira ere erretiro hau euren nagusigo intelektuala indartzeko aitzakiatzat baliatu dutenak, barnera begiratzearen plantak eta esloagana erabilita ere, barnera ez begiratzeko bilatu dutenak kulturaren babesleku. Egunero kultoko pelikula bat bertsio originalean ikusi (eskerrak ez dutela asko hitz egiten!) eta astero testu klasiko bat irakurri duena, pentsatuz itxialdia amaituta betidanik buruan izan bai baina bizitzaren kontingentziak oztopatu dion ibilbide artistikoa abiatuko zuela. Poeta, eleberrigile, performer, dutxako bertsolari... Ez atzipetu zeure burua: ez pentsa zure izana denik intelektuala izatea: ihesbide sublimatu bat besterik ez da zure itxurazko bokazio hori.

Tinder eta Wapo ere, zertarako sortu ditugu, gutako asko jada bikotean bagaude jada, ez bada dibertitzeko? Etxean dugunari ihes egin eta kontrako bidea hartzeko? Bai, bai, nahi dituzun aitzakia guztiak erosiko dizkizut: jendea ezagutzeko modua dela, oso elkarrizketa interesgarriak ditudala konpatibleak garen horiekin...

Bai, bai, politta. Badakit zu ere talde hauetakoren batean egongo zarela, zeure buruari aitortu ala ez. Ez engaina, bi hankako animalia ez lumadun, ez. Horretarako telebista, Play Station eta liburuak, horretarako sukaldeak eta gantxilloa, horretarako Twitter eta Instagram, horregatik Patri Jordan eta txaloak zortzitan. Ala uste zenuen benetan osasuntsu egoteko hasi zinela ogia egiten eta munduan gertatzen zenaz jakiteko sortu zenuela gutxi arte sutuki arbuiatu zenuen Twitter kontua? Egiatan sinetsi zenuen zure esentzia aurkitu duzula lau pareta artean koadroak margotzen eta bertsoak idazten? Oh, gizakia! Animalia guztietan maltzurrena, eta aldi berean inozoena... *Pantaporos-aporos!* Dibertitzeko besterik ez ditugu liburuak irakurtzen, serieak irensten, abdominalak egiten: gure mamuetatik ihes egiteko. Gure pasiotzat (adi, batzuek bokaziotzat!) hartu ditugun ekintza horiek ez dira dibertsio hutsa baino, nork bere ispiluari begiratzeko beldurrez jarri dugun makillajea...

Arrazoi zuen Pascalek, bai. *Ez gara gure baitakoak.* Gure izatean ezkutuan dauden pentsakizun horiei heldu baino, nahiago dugu urrundu, pentsamendu horien kontrako norabidea hartu eta existituko ez balira lez, munduko hutsalkeri eta dibertimendutan jolastu. Kasu horretan, dibertimenduak benetan ez garen horretan itxuraldatzen gaitu gehiengoaren zurrunbiloak betirako xurga gaitzan. Dibertimenduak, beraz, tatuai batek bezalaxe, gurea dugun zerbait estali besterik ez

baitu egiten, baina finean, hor dago estarian, gela huts batek edota berrogeialdi batek noiz desestali zain.

Alabaina, bizi gaitezke gela huts batean geure buruarekin dantzan? Are, hori al da bizitza? Gela hutsean entzun daitezkeen ahotsak norberaren baitatik baino, gela hutsak sortuko balitu? Pentsakizun horiek, finean, ez ditugula geure baitan; gela huts batek, hutsik egotearen egotez, sortzen duen oihartzuna besterik ez bada? *Ez gara geure baitakoak*. Ala agian bai? Badago akaso beste modurik?

Dibertimendua beraz, gure izatearen pozoi ala sendagai? Galdera horri erantzun diezaiola irakurleak amildegiari begiratu ostean eta haren berrogeialdian usnatu ostean.

La nuit venue, ma chambre silencieuse se remplit de monde et de bruits; les corridors de l'hôtel paisible s'emplissent de groupes qui se croisent et se coudoient, les escaliers encombrés ne suffisent plus; l'ascenseur, à la descente comme à la montée, est toujours plein. Le boulevard Edgard-Quinet, une cohue jamais rencontrée s'y écrase, des camions, des autobus, des cars y passent, des wagons de marchandise y passent et, comme si ça ne suffisait pas, un énorme paquebot comme le «Normandie», profitant de la nuit, est venu s'y mettre en cale sèche, et des milliers de marteaux frappent joyeusement sur sa coque qui demande à être réparée.

À ma fenêtre, une énorme cheminée vomit largement une fumée abondante; tout respire la générosité des forces des éléments et de la race humaine au travail.

Quant à ma chambre qu'on trouve si nue, des tentures descendues du plafond lui donnent un air de foire, les allées et venues y sont de plus en plus nombreuses. Tout le monde est animé; on ne peut faire un geste sans rencontrer un bras, une taille, et enfin, étant donné la faible lumière, et le grand nombre d'hommes et de femmes qui, tous, craignent la solitude, on arrive à participer à un emmêlement si dense et extraordinaire qu'on perd de vue ses petites fins personelles..., c'est la tribu, ressuscitée, miraculeusement dans ma chambre, et l'esprit de la tribu, notre seul dieu, nous tient tous embrassés.

Henri MICHAUX, *La Nuit remue*